

LEGAZPI / Udal Euskaltegiak martxan jarri du irakurketa tailerra, partaide ugarirekin

LEGAZPI. DV. Irailean hasitakoa, Udal Euskaltegiaren 25. ikasturtea da, eta urteurren berezi hori ospatzeko, hainbat ekitaldi burutuko dira hurrengo hilabeteetan zehar. Ekitaldi horietako bat, ordea, ikasturtearekin batera jarri zen martxan, eta oso eran- tzun onarekin, gainera: Irakurketa Tailerra. Irakurketa Tailer honetan 18 legazpiar ari dira parte hartzen. Ez dira denak Euskaltegiko ikasak, ez baita hori beharrezkoa. Tailerrean parte hartzeko baldintza bakarra, euskaraz irakurtzeko gogoia edukitzea da. Oraindik badago taldean sartzeko aukera. Horretarako, Euskaltegian eman behar da izena. Ez da matrikularik ordaindu behar, ezta klaseetara joan behar ere. Izena ematean, Euskaltegian hainbat liburu gomendatuko dira irakurtzeko. Liburu horiek bertan eskura daitezke, edo Udal Liburutegian, ekimen hau bi erakundeen arteko kolaborazioan oinarritzen da eta. Liburuen gomendioa, irakurlearen arabera egiten da, zaletasunak, adina, eta beste batzuk kontuan hartuz. Liburua irakurritakoan, Euskaltegira itzuli eta hango korridorean jarritako panelean, balorazioa egingo da: gustatu bada, tituluaren gainean gometxa jarri behar da.

Horrela, gehien gustatzen diren liburuen zerrenda egiten da. 'Amaren eskuak ' eta ' Arotzaren eskuak ' asko gustatu dira.